

Diagnosiaren emaitzak, proposamenak eta konpromisoak

1- Aisialdirako lekuak

Herriko parke, plaza eta aisialdirako leku hauek aztertu ditugu: Zumardi Txikia, Sortzez Garbia enparantza, Arkate parkea, Zabalarreta parkea, Plaza Berria, Jurasikoa (Santa Maria), Norvegiako parkea, Iurrekoa, Berazubikoa, Amaro zuzokoa, 'Pista Patines' deitzen duguna, eta Oria ibaiaren ertzeko pasealekua. Ikusitako arazo orokorrak eta taldean erabakitako konponbideak aipatzen ditugu ondorengo zerrendetan:

Arazo orokorrak eta konponbideak

Ez dago bizikletentzako aparkalekurik = Behar diren tokietan ipini.

Ez dago komunik = Pixkanaka jartzen joan, eta garbi mantendu.

Zakarrontziak falta dira edota zaharrak daude = Berriak jarri behar dira.

Eserlekuak falta dira edota hondatuta daude = Berriak ipini, puskatuta daudenak konpondu eta margotu.

Jolasterakoan pilotak kanpora irteten dira (kalera, trafikoa dagoen lekura, ibaira...) = Sareak, horma altuagoak edo landarekin osatutako hesiak jarri.

Kirolean jarduteko ekipamenduak falta dira: saskibalo sareak, futbol ateak, lurreko marrak...

Jolasteko jarrirako tresnak haur txikiarentzat pentsatuta daude (zabuak, zubiak, etxetoak...) = Adin ezberdinei egokitutako jolasak ipini (Jurasikoko sarea adibide ona iruditzen zaigu; edo, esaterako, tirolina, rapel egiteko horma, bolatokia, toka, pinpoi mahaia eta tenis kantxa izatea gustatuko litzaiguke).

Xakean edota mahai jokoetan aritzeko mahai aproposak falta dira = Leku egokietan jarri.

Ez dago aterpe egokirik euria egiten duenean jolasteko = Zerkasua atondu aterpe moduan erabili ahal izateko, hozpel eta zikin baitago.

Iturriak falta dira = Parke zein plaza guztietan ipini.

Zakurrak kaka egiteko lekuak ondo bereiztu behar dira, haur txikiak jolasteko erabiltzen baitituzte = Hesiak jarri.

Zakur kaka asko dago non-nahi = Garbitu, herritarrak informatu, eta zakurren jabeek isunak jarri kaka ez jasotzeagatik.

Arazoak leku zehatzetan = konponbideak



ZABALARRETA PARKEAN. Ahateen putzua oso zikina dago, eta hesia eta etxola puskatuta = Txukundu eta garbi mantendu.

IURRE PARKEAN. Farolek ez dute argirik ematen.

ZUMARDI HANDIAN. Zorua gaizki dago, eta aparkaleku gisa erabiltzen da soilik = Zorua konpondu eta patinatze eta skate-ean ibiltzeko leku bihurtu.

SPUTNIK-EKO PARKEAN. Sareak ipini saskietan.

PLAZA BERRIAN. Zorua garbitu.

ARABA ETORBIDEAN ETA 'PISTA PATINES' IZENEKOAN. Bankuak puskatuta daude, eta zorua altxatuta = Konpondu.

BERAZUBIKO ETA AMAROTZEKO JOLASGUNEAK. Berritu behar dira.

JURASIKO PARKEAN. Sarea ipini, pilota edota baloia ibaira ez erortzeko.

JURASIKO PARKEAN ETA ZERKAUSIAN. Oso giro txarra egoten da, eta beldurra ematen digu.

ZUMARDI TXIKIAN. Ibilgailuen aparkalekua da = Lurrazpiko aparkalekua eraiki, eta goian parkea, lorategia eta jolasgunea ipini.

'KAKABIDEA'-N. Ikasle askoren pasabidea da, eta ez da behar bezainbeste garbitzen.

2- Aisialdia

Lagunekin egoteko tartea, denbora libre eta gustuko gauzak egiteko unea da guretzat aisialdia. Gehienok ekintza antolatuetan soilik hartzen dugu parte (%18k izan ezik), baina ekintza hauek ordaindu behar ditugu, eta garestia da guretzat.

Asteburuetak denbora libre bat telebista ikusten ematen dugu gaztetxoek (%90), musika entzuten (%70) eta lagunekin kalean eta tabernetan (%74 DBH-koak); gazteenek, irakurtzen (%79) eta ordenagailuan (%65). Mutilok gehienbat futbolekin jokatzeko pasatzen dugu denbora, eta b atzuek civer-en. Kirol antolatuei nahiko denbora eskaintzen diegu, eta bestelako kirolei zertxobait gutxiago. Tabernetara ez gara edatera joaten, leku estaliak direlako, lagunak aurkitzen ditugulako eta musika entzuten delako baizik.

Astegunetan eskolaz kanpoko jarduerak ditugu, eta aisialdirako denbora gutxiago. Lagunekin ateratzeko apenas astirik dugunez, gehienbat telebistaren (% 84) edo ordenagailuaren aurrean (%61) egoten gara.

Proposamenak:

Udalari proposamen hauek egin nahi dizkiogu :

Zinea eta kontzertuak maizago eta merkeago jartzea. Asteburuetan lagunekin egoteko leku estaliak prestatzea. Parke handi bat egokitzea, joko askorekin eta, batik bat, nerabeentzako aukerekin, egungoak txiki-txiki entzateko baitira. Bidegorria ahal den azkarren egitea. 10 eta 13 urte bitartekoentzat zerbait antolatzea, hutsune handia dago eta.

Gurasoei:

Eskolaz kanpoko ekintzak norberak aukeratzea. Gaztetxoek lagunekin egoteko denbora gehiago eskatzen dugu, eta txikiak gurasoekin gurekin gehiago jolastea.

Eskoletako arduradunei:

Eskoletako orubeak asteburuetan zabalik egotea.

Dena den, guk ere konpromiso batzuk hartzen ditugu:

Telebista gutxiago ikustea. Parkeak eta orubeak zaintzea.

3- Aisialdi taldeak:

Tolosan 5 aisialdi talde daude: Atsedena (Santa Maria eliza), San Bernardo (Scout taldea), Kazkabarra (Laskorain ikastola), Kirikiño (Hiruki ikastetxea) eta Ttentek (San Frantzisko eliza); horiez gain, Topagunean ere antolatzen dira ekintzak asteburuetan. Bi aisialdi talde eskolek sortutakoak dira, beste bi elizak, eta bat scout talde laiko da.

7 eta 19 urte arteko haur eta gazte aritzen dira haietan. Talde bakoitzak kuota desberdina dauka materiala eta irteerak ordaintzeko; batzuek irteerak besterik ez dituzte kobratzen, eta gehien kobratzen duenak 52 euro eskatzen ditu hiru hilero.

Astean behin elkartzeko dira, eta horrelako ekintzak burutzen dituzte: jokoak, eskulanak, pelikulak ikusi, gaiak eztabaidatu, txangoak, kanpamenduak, eta herriko ekintzetan parte hartu.

Gehienetan, euskaraz hitz egiten dute.

Proposamenak Udalari:

Talde hauetako gazteria gustura dago, baina Udalari ondorengo eskaerak egiten dizkio:

Talde hauek bultzatzea eta laguntzea. Topaguneak 15 eta 16 urtekoentzat ekintza gehiago antolatzea, iruditzen zaigulako orokorrean gazteagoentzat egiten direla.

Bestetik, berdeguneak Arau Subsidiarioetan nola jasotzen diren ikusita, uste dugu ez zaiela ia garrantzirik ematen, eta proposamen hauek egiten ditugu:

Berdeguneak sailkatzea. Berdeguneak erabileraren arabera arautzea. Biodibertsitatearen kontserbazioa kontuan izatea. Gure ordezkariak parte hartzeko aukera ematea arauak berritzera.



Hemos analizado los parques, las plazas y lugares de ocio:

Parques y plazas. Propuestas de mejora:

Pedimos que se instalen zonas de aparcamiento para bicicletas, servicios públicos, bancos nuevos que sustituyan a los rotos (o que se arreglen cuando sea posible), papeleras, fuentes, etc.

En las zonas de juego o deportes hace falta colocar setos o redes que impidan que las pelotas y balones caigan al río o a la carretera.

Los juegos que se colocan en los parques no tienen en cuenta a los adolescentes; además de columpios, toboganes y similares, nos gustaría, por ejemplo, disponer de tirolinas, rocódromos, tocas, mesas de ping-pong...

Ocio:

Ocio significa para nosotros tener tiempo libre para estar con amigas y amigos y para hacer lo que nos gusta. La mayoría participamos en actividades organizadas (sólo un 18% no lo hace), aunque es cierto que no todas son gratuitas, y algunas resultan caras.

Por eso proponemos a los responsables del Ayuntamiento que organicen sesiones de cine y conciertos más baratos, y con mayor frecuencia. También le pedimos que habilite lugares protegidos de la lluvia para poder reunirnos los fines de semana, que haga un parque con juegos adaptados a los adolescentes y que organice actividades para jóvenes entre 10 y 13 años, ya que ahora hay un vacío de ofertas para este grupo.

GRUPOS DE TIEMPO LIBRE:

Después de haber estudiado la oferta y las características de los 5 grupos que hay en Tolosa y la oferta del Topagune proponemos que:

Se apoyen y fomenten los grupos de tiempo libre de Tolosa.

La oferta del Topagune cuente con actividades adecuadas a los jóvenes de 15 y 16 años.

Elkarrizketak

Ikuspegi soziologikoa:

En los resultados que se observan en la tabla hay aspectos que apuntan a la tendencia general de nuestro entorno, como son las muchas horas que dedican a la televisión o la demanda de más tiempo para estar con madres y padres. Es preocupante que "los nuevos adolescentes" estén creciendo más solos que nunca ya que padres y madres están más ocupados y, globalmente, se da más importancia a la promoción individual de los miembros de la pareja en detrimento de la familia. Se está dando el fenómeno de "individualización" de la familia, en la que el grupo familiar pierde a favor de la promoción individual de sus miembros.

Por otra parte, hay una preocupación creciente por las hijas y los hijos que se centra en su seguridad, calidad de enseñanza, nivel de exigencia y que, sin embargo, no está en sintonía con una demanda fundamental que aparece en los nuevos adolescentes a los que antes aludía: más tiempo para la convivencia, el juego, el ocio, en la rutina familiar y entre todos sus miembros. Hay varias razones que refuerzan esta necesidad: por una parte, no se ha compensado la ausencia de la mujer en el hogar del modelo familiar anterior con una "entrada del hombre" real y responsable en la casa. Por otra parte, han ido desapareciendo las familias compuestas por tíos, abuelos, cuya relación afectivo-intergeneracional no llega a suplir el actual servicio doméstico. Una última razón apunta a la mayor cantidad de familias monoparentales a las que se llega por situaciones diversas (divorcios, hijos de otros matrimonios,...), en las que crecen los hijos habidos fuera del matrimonio con las consecuencias que acarrea todas estas situaciones para los menores. Nuestro modelo de sociedad con consumos tan onerosos, como por ejemplo la necesidad de viajar hasta lugares alejados en

cualquier periodo vacacional, exige un esfuerzo laboral alto para poder contar con el suficiente dinero que nos lleva a trabajar más, tanto la madre como el padre. ¿Es realmente necesario, aunque ello conlleve erosionar la convivencia familiar?

Sí, es evidente que hay un exceso de "digitalización" en la realidad adolescente actual, son dueños de los mandos de la televisión y acceden a redes de información (chat, internet) en muchos casos sin protocolos de seguridad ni filtros. Todo ello lleva a un estado de sobreexcitación que choca con la necesidad de estar tranquilos para conversar con sus amigas y amigos. Baste un ejemplo, en un estudio reciente que he realizado sobre el fenómeno del botellón se llega a la conclusión de que una de las razones principales del éxito de esta práctica, además de la económica, radica en la necesidad de contar con espacios de encuentro, sin ruido excesivo (discoteca) y poder conversar. En el fondo lo que quieren, incluso en contra de lo que hacen, es poder hablar, conversar a veces con amigas y amigos, a veces con otros jóvenes, con madres y padres,...

Atendiendo al ocio de generaciones anteriores sí se ve una clara diferencia. No hay más que ver nuestras plazas y parques los fines de semana. En muchos pueblos aparecen desiertos, no se ve vida en las calles. Además, el ocio se está haciendo cada vez a edad más temprana nocturno y experiencias como "Bilbao Gaua" o "El ocio saludable" en Málaga están apuntalando una tendencia contra la que habría que luchar. En la adolescencia el ocio no debe ser nocturno y, cada vez a edades más tempranas, cedemos ante argumentos tales como: "porque a fulanita le dejan, soy el único que no voy a poder ir,..." Tenemos una responsabilidad muy alta, aunque las tendencias que desde hace 15 ya preconizaba se están haciendo presentes en nuestra sociedad de manera inexorable.

Javier Elzo

Un mundo que agoniza:

"A mi juicio, el primer paso para cambiar la actual tendencia del desarrollo, y, en consecuencia, de preservar la integridad del hombre y de la naturaleza, radica en ensanchar la conciencia moral universal. Esta conciencia moral fue, por encima del dinero y de los intereses políticos, la que detuvo la intervención americana en Vietnam y la que viene exigiendo juego limpio en no pocos lugares de la tierra. Esta conciencia, que encarnó preferentemente en un amplio sector de la juventud, que ha heredado un mundo sucio en no pocos aspectos, justifica mi esperanza.

Muchos jóvenes del Este y del Oeste reclaman hoy un mundo más puro, seguramente, como dice Burneo, por ser ellos la primera generación con DDT en la sangre y estroncio 90 en los huesos"

Miguel Delibes

¿Y que tiene que ver todo esto con el Medio Ambiente?

Hace tres años los niños, niñas y jóvenes de Tolosa comenzaron a trabajar en un proyecto sobre movilidad: Mugi-Hadi. Muchos recordaréis la exposición del palacio de Aramburu en que su hijo o hija aparecía como autor, explicando cuáles eran los problemas que se encontraban para ir de una lado a otro con plena seguridad, autonomía y con la certeza de que su opción era la mejor para cuidar del medio ambiente. Una de las conclusiones a la que llegaron fue la de que el coche ocupa demasiado sitio en nuestras calles y que había que rescatar lugares para el encuentro y juego. A partir de ahí surgió: Kalea=elkargunea que reivindica y trabaja a favor de un uso más saludable y ecológico de nuestro ocio.

Eta guzti honek zer ikusia du ingurumenarekin?

Duela hiru urte Tolosako haurrak eta gazteak mugikortasunaren inguruko proiektuan hasi ziren elkar lanean: Mugi Hadi! Gogoan izango duzue Aramburu jauregian egindako erakusketa non zuen seme-alabak egileak ziren. Erakusketa hartan zera azaltzen ziguten, eguneroko joan-etorrietan zituzten arazoak segurtasunari eta autonomiarri begira, eta zalantzarik gabe, aukeratutako irtenbideak onenak gertatu ziren ingurumena zaintzeko. Ikasleek ateratako ondorioen artean hauxe azpimarratu zuten, autoek gure herriko kaleetan leku gehiegi hartzen dutela eta kaleak jolaserako zein bizikidetzarako berreskuratu behar direla. Ildo honi jarraituta, Kalea=elkargunea proiektua sortu zen gure aisia osasuntsuagoaren eta ekologikoagoaren alde lan egiteko.



Eta datorren ikasturtean zer?

Uzturre kalearen berreskurapena, garbiketa, txukunketa, berrikuntza. Kale hau Tolosako ikasle zein irakasle askoren oinezko bidea da. Nahiz eta epe ertainean birmoldatuko den zonaldean kokatuta egon, proiektua gauzatu bitartean modu errazean eta merkean txukundu daitekeela uste dugu. Gainera, aurtengo bide gorriaren lehenengo ardatza bertatik pasako denez, ikastetxeek kalearen txukunketan parte hartzeko aukera ikusten dugu: pintatu, harraska berreskuratu,...

Herriko Zerkausiaren birgaitze plangintzan parte hartzea erabilpen desberdinen ekarpenak luzatuz, beste herriko taldeekin eztabaidatuz eta azken diseinua gauzatzuz. Alkateak emandako audientzian jaso genuen proiektu honetan parte hartzeko gonbita. Herriko leku pribilegiatuan dagoen estalpea da eta larunbatetan baseritarren azokaren gordeleku. Asteaz zehar oso erabilpen kaxkarra ematen zaionez eraikina birgaitu jaso nahi ditu Udalak behin betiko diseinuan barneratu ahal izateko. Herriko neska-mutilek zer esan handia daukate plaza edota gordeleku estaliak eskatzen dituztelako.

Oria ibaiak herriari ematen dizkion aisiarako aukerak jorratu eta ibaiari jarri edota berreskuratu: interpretaziorako pasealekua, ur-kirolen gunea, ibarretako espezieen berreskurapena, ... Aurrekoaren proposamenaren osagaia izan daiteke, zerkausia Oria ibaiari begira dagoen balkoitzat har daitekeelako. Gainera, bertan estropadetan jarduteko kai txikia ipini nahi da ibaiaren aisiarako erabilpena berreskuratzeko.

Haurren parkea berri ondoren erabiltzaileen asetasun maila neurtzea, aurreko diagnostikoa egiterakoan obretan baitzegoen. Parkea inauguratu ondoren berri eta gutun dezente argitaratu da prentsan. Oso momentu egokia iruditzen zaigu erabiltzaileen asetasun maila neurtzeko eta emaitzak Udalera eramateko.

Sortzez Garbia plaza 8-13 bitartekoen aisi tokia gertatzeko plangintzan parte hartu. Parke hau aurrekoaren jarraipena izateko moldatuko dute. Egun, neska-mutilen elkargune bihurtu denez, dituen hutsuneak beraien beharretara moldatzeko aukera izango genuke. Hala ere, kontuan izan beharko ditugu plaza honen gainontzeko erabiltzaile potentzialak.

Eskolako Agenda 21

Tolosa 2004/05

Tolosako ikastetxeak Eskolako Agenda 21 proiektuan aritu gara lanean 2004-2005 ikasturtean. Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoek hartu dugu parte, eta "Kalea=Elkargunea" gaia landu dugu. Zer egiten dugu gure aisialdian?, nola daude gure herriko elkarguneak: plazak, parkeak,

lorategiak...? Honelako galderei erantzuteko hainbat ekintza burutu ditugu. Guztien artean, alkatearekin izandako audientzia aipatu nahi dugu; hori baita gure lanaren xedea: herriko neska-mutilen ekarpenak eta zeresanak udal kudeaketan kontuan hartzea, Tolosa hobetzeko ahaleginetan.

Alkatearekin udalbatza osatu genuen

2005eko martxoaren 16an, 09:30ean, alkateak, zinegotziek eta zenbait udal teknikarik ikastetxeetako ordezkariak eta Ingurumen batzordeko kideak hartu gintuzten, udaletxeko batzar aretoan. Guztiei gure lanaren emaitzen berri emateko aukera izan genuen: eskaeren zerrenda irakurtzeaz gain, gazteok hartutako konpromisoak azaldu genizkien; argi dugulako arazoei aurre egiteko abiapuntua gure esku dagoena egitea dela. Konpromiso hauek hartu ditugu:

Zakarra lurrera ez botatzea. Jarriko diren komun berriak garbi mantentzea. Txakurrak ditugunok hauen kakak jasotzea. Zakarrontziak, eserlekuak, jolasak eta bestelakoak zaintzea. Iturriak modu egokian erabiltzea. Udaletxean postontzi berezia jarriz gero, ikusitako triskantzak eta arazoak jakinarazteko erabiltzea.

Biziki eskertu zigun alkateak egindako lana eta, gainera, gure ustekaberako, hark ere hartu zituen bere



gain hainbat konpromiso: lehendabizikoa eta garrantzitsuen, egindako eskariei bi hilabete barru erantzutea, gai bakoitzari zein epean helduko dioten eta nolako irtenbidea emango dioten zehaztuz. Halaber, datorren ikasturtean elkar lanean aritzeko gonbita egin zigun. Alkatearen iritziz, zeresan handia

dugu epe laburrean abian jarriko diren hainbat proiektutan, hots: *Zerkausiaren erabilpena eta birgaitze proiektua finkatzeko parte-hartze prozesuan proposamenak egiteko aukera izango dugu. Kultur Etxean, egun Haur Liburutegia dagoen lekua Gazteria departamentuari uztea aztertzen ari dira, eta*

neska-mutilen ekarpenak jasotzeko prest daude. Gazte Topagunetik at geratzen diren adin taldekooi Gazteria departamentukoekin harremanetan jartzea eskaini zigan. Horretarako, departamentuko arduraduna ikastetxez ikastetxe joango da, gure iritzia jaso ahal izateko.

Hau guztia elkarri kontatzeko aukera izan genuen. Agian, udal ordezkariak galderak aske egiteko aukera izateak harritu gintuen gehien. Gainera, gaztetxoek helduen kezka berak ditugula esan ziguten: "Bidegorria noizko bukatuko duzue? Orain egingo den zatia loturarik izango al du ikastetxeetarako? Igarondo igerilekuaren instalazioak oso zaharkituta daude, sabaitik pusketak erortzen dira...; ezin al da konpondu?". Galdera bakoitzari erantzuna eman zioten udal ordezkariak, alkateak eta zinegotziek.

Baina ezin dugu ahaztu gure lanaren muina, hau da, ikasturtean egindako azterketa. Ondorengo orrietan horren berri ematen dizuegu.

Participamos en un pleno con el alcalde

"Kalea=Elkargunea" o "La calle=Lugar de encuentro" ha sido el tema que nos ha reunido al alumnado y profesorado de Primaria y Secundaria de los centros escolares de Tolosa durante el curso 2004-2005, dentro de la 2ª edición de la Agenda 21 Escolar. Cómo están nuestras plazas, parques y jardines, o qué nos gustaría hacer en nuestro tiempo de ocio son algunas de las cuestiones sobre las que hemos trabajado. Hicimos llegar al alcalde las conclusiones de nuestro trabajo, ya que uno de los objetivos fundamentales es integrar nuestras aportaciones y opiniones en la gestión municipal mediante el proceso de participación, para así mejorar nuestra realidad inmediata. Durante la audiencia tuvimos la oportunidad de sentirnos

parte de la corporación, y hubo espacio para explicar nuestras propuestas, leer los compromisos que la comunidad escolar ha adquirido y escuchar la respuesta de los representantes municipales. El alcalde también asumió el compromiso de responder oficialmente a nuestro escrito en un plazo no mayor a dos meses. Además, nos invitó a participar durante el próximo curso en tres proyectos que tienen relación directa con lo que hemos trabajado este año: tomar parte en la remodelación del Tinglado, hacer sugerencias al departamento de Juventud sobre los posibles usos del espacio libre que deja la actual biblioteca infantil, y trabajar conjuntamente para desarrollar acciones y propuestas para los grupos que quedan fuera de la oferta de actividades actual.